

BERRIKUNTZA 4.0 INDUSTRIA GARBIAGO ETA ERAGINKORRAGOA LORTZEKO

Posted on 10/01/2017 by Naider



4.0 industriaren garapenean berrikuntzak fabrikazio-jardueraren ingurumen-inpaktua murriztu dezake. Horren erakusgarri, Ecograb proiektu europarra, euskal zentro teknologikoak gidatzen duena [Ceit-IK4](#)k eta bertan parte hartzen du Arrasateko Korporazioko Fagor Automation enpresak ere. Proiektuaren helburua da lehendik dauden fabrikazio sistemak, askotan ingurumenarentzat kaltegarriak diren osagai kimikoak erabiltzen dituztenak, metodologia jasangarriagoa eta polifazetikoago batekin ordezkatzea

Zehazki, Ecograb-en garatutako metodologiak elementu kimikoak intentsiboki erabiltzen dituzten enpresa handien prozesu fotolitografikoak ordezkatzeko du helburu.

Horretarako, Ecograb-en (Femtosegundoko laser kodetzaileetan aplikatzeko difrakzio/polarizazio sareak grabatzeko sistema industrialak) parte hartzen duten teknikari eta zientzialarien diziplina anitzeko taldea, osagai kimikoen teknika librea den femtosegundoko laserretan oinarritutako teknologia optiko aurreratuago batean lan egiten ari da. eta beraz, ingurumenarekiko errespetu handiagoa

Ceit-4Kk zuzentzen duen partzuergoak Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa eta SnellOptics sistema optomekanikoen fabrikatzailea ere biltzen ditu.

There are no comments yet.